

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 8a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Agoizko Siemens-Gamesako plantillaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, enplegu-politika aktiboetarako dirusarreraren partidei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Plana birformulatzeaz arduratzen den talde espezifikoiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planean Nafarroak izan duen lankidetzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, 2021-2024 aldirako Enplegua Aktibatzeko Espainiako Estrategia berria egiteko lantaldeak eratzeko proposamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle konfinatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, on-line irakaskuntzari ekin ahal izateko ekipo informatikoak erosteari eta ikastetxeetan banatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “Health Big Data Hub” proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, “Centro Internacional de Investigación Inteligencia Artificial” proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “Consolidación Sociedad-conocimiento” proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “Ebro Food Valley” proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “Next Generation UE” planari aurkeztutako proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroa 2030 Estrategia Digitalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, osasun etxeak larunbatetan irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 6.2 artikulua aplikatuta jasotako konpentsazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-135 errepidean aurreikusitako ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, atzerrian diren nafarrei zuzendutako Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, migrazioari buruzko politiken koordinazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, konfinamendu-egoeran dauden ikasleen ebaluazio-probei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako larrialdietako laguntza fakturatzeko prozedurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen osasun-txartela eskuratzeko prozedurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Agoizko Siemens-Gamesako plantillaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Agoizko Siemens-Gamesako plantillaren egoerari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 6ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du Agoizko Siemens-Gamesako plantillaren egoerari buruz (10-20/PES-00275). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Honako hau da Siemens-Gamesaren Agoizko lantegian egindako ABEEEko birkokatze-planak ukitutako langileen egoera:

Gaur egun beste enpresa batzuetan lanean:	121
Enplegu zerbitzu publikoetan izena emanda:	105
Baja medikoan:	2
besterik (ez enplegu zerbitzuetan izena emanda, ez Gizarte Segurantzaren altan emanda):	10
Plantilla, guztira:	238

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 6ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak bi galdera egin ditu Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko Konferentziaren funts-banaketak Nafarroako Gobernuaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuan izanen duen inpaktu ekonomikoari buruz (10-20/PES-00276 eta 10-20/PES-00277). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Enplegu eta Lan Aferen Sektoroko Konferentziak 2020ko irailaren 30ean egindako bileran, prestakuntzari buruzko atalari dagozkion funtsak autonomia-erkidegoei banatzea erabaki zen, bai eta enpleguari eta modernizazioari buruzko atalaren zenbateko gehigarri bat ere.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 2020rako diru-sarreraren aurrekontuan

22.550.000 euro aurreikusi ziren SEPEren prestakuntza-, enplegu- eta modernizazio-programen transferentzia gisa. Azkenean, Nafarroak 21.788.590 euro jaso ditu, aurreikusitakoaren nahiko antzekoa den zenbatekoa.

Hona hemen diru-sarreraren aurrekontu-partiden xehakapena:

Programa	Zentro kudeatzailea	Ekon.	Funtz.	Izena	HASIERAKOA 2020	BENETAKOA 2020
950000	96000	4000	000000	Enplegu Plana. SPEEren transferentziak, NEZ modernizatzeko	650.000	664.686
950001	96100	4000	000002	Enplegu Plana. SPEEren transferentziak, enplegu-politika aktiboetarako	10.300.000	11.689.662
950002	96200	4000	000000	Enplegu Plana. SPEEren transferentziak, enplegurako prestakuntza-programetarako	11.600.000	9.434.242
				GUZTIRA	22.550.000	21.788.590

Ez da eragin ekonomikorik izan erakundearen gastu-aurrekontuari dagokionez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, enplegu-politika aktiboetarako dirusarreraren partidei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu-politika aktiboetarako dirusarreraren partidei buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 6ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak bi galdera egin ditu Enplegu eta Lan Aferen Sektoroko Konferentziaren funts-banaketak Nafarroako Gobernuaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuan izanen duen inpaktu ekonomikoari buruz (10-20/PES-00276 eta 10-20/PES-00277). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko Konferentziak 2020ko irailaren 30ean egindako bileran, prestakuntzari buruzko atalari dagozkion funtsak autonomia-erkidegoei banatzea erabaki zen, bai eta enpleguari eta modernizazioari buruzko atalaren zenbateko gehigarri bat ere.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 2020rako diru-sarreraren aurrekontuan

22.550.000 euro aurreikusi ziren SEPEren prestakuntza-, enplegu- eta modernizazio-programen transferentzia gisa. Azkenean, Nafarroak 21.788.590 euro jaso ditu, aurreikusitakoaren nahiko antzekoa den zenbatekoa.

Hona hemen diru-sarreraren aurrekontu-partiden xehakapena:

Programa	Zentro kudeatzailea	Ekon.	Funtz.	Izena	HASIERAKOA 2020	BENETAKOA 2020
950000	96000	4000	000000	Enplegu Plana. SPEEren transferentziak, NEZ modernizatzeko	650.000	664.686
950001	96100	4000	000002	Enplegu Plana. SPEEren transferentziak, enplegu-politika aktiboetarako	10.300.000	11.689.662
950002	96200	4000	000000	Enplegu Plana. SPEEren transferentziak, enplegurako prestakuntza-programetarako	11.600.000	9.434.242
				GUZTIRA	22.550.000	21.788.590

Ez da eragin ekonomikorik izan erakundearen gastu-aurrekontuari dagokionez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Plana birformulatzeaz arduratzen den talde espezifikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Plana birformulatzeaz arduratzen den talde espezifikoari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 6ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planaren birformulazioan Nafarroak izan duen parte-hartzeari buruz (10-20/PES-00278 eta 10-20/PES-00279). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Enplegu Politika Aktiboen Urteko Plana (aurrerantzean, PAPE) Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (aurrerantzean, SEPE) eta autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzuek garatutako

enplegu-politika aktiboak biltzen dituen tresna da. Dokumentu hori urtero egin eta onartzen du Ministroen Kontseiluak. Izapideak hasteko, autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzuek beren lurralde-eremuan garatutako zerbitzu eta programa komunen nahiz propioen katalogoa egiten dute, eta Estatuko aplikazio informatiko espezifiko batean grabatzen dira. Zerbitzu eta programa horiek, bai eta SEPEri dagozkionak ere, Enplegu eta Lan Aferen Sektorereko Konferentziak onesten ditu, eta dagokion lege-izapideekin jarraitzen da gero. Enplegu-zerbitzu autonomikoen 2020ko zerbitzuak eta programak otsailean jakinarazi ziren, Estatuak ezarritako epean. Hilabete geroago, koronabirusak eragindako osasun-krisia hasi zen. Hori dela eta, apirilaren 1eko Enplegu eta Lan Aferen Sektorereko Konferentzian, non 2020ko PAPEa aurkeztu baitzen, hura birformulatzea erabaki zen, autonomia-erkidegoekin lantalde espezifikoa bat abian jarrita.

Apirilaren 27an, SEPEk PAPEa berregiteko lan-metodoa eta lanen egutegia bidali zituen.

Lan-metodologian, berreraikuntza horretarako bi lantalde finkatu dira: berregitea zuzenduko duen berariazko taldea osatuko duten autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzuetako Zuzendari Nagusien Batzordea, eta PAPEaren ebaluaziorako talde teknikoa (lehendik dagoen taldea), zeina arduratuko baita zerbitzuak eta programak berre-

giteaz eta dagoen aplikazio informatikoan grabatzeaz. Nafarroaren aldetik, Miriam Martón Pérez zuzendari kudeatzailea zegoen berariazko taldean, eta Ana Arteaga Martínez Administrazio Laguntza eta Kudeaketarako Zerbitzuko zuzendaria, berriz, PAPEaren ebaluaziorako talde teknikoan.

Berariazko taldearen lehenengo bilera apirilaren 28an egin zen.

Apirilaren 29an ebaluazio-talde teknikoaren lanari ekin zitzaion.

Nafarroak modu aktiboan parte hartu da PAPEaren birformulazioan, Estatuak bidalitako dokumentuak aztertu eta haiei ekarpenak eginez (esparru estrategikoa) eta planteatutako zerbitzuak eta programak birformulatuz, haiek egokitu-ta ekainean onetsitako Nafarroako enplegu-politika aktiboaren talka-planera.

PAPEaren 2020ko datuak grabatzeko berregite-lana ekainaren 25ean amaituko da Nafarroan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planean Nafarroak izan duen lankidetzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planean Nafarroak izan duen lankidetzari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 6ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planaren birformulazioan Nafarroak izan duen parte-hartzeari buruz (10-20/PES-00278 eta 10-20/PES-00279). Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Enplegu Politika Aktiboen Urteko Plana (aurrerantzean, PAPE) Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (aurrerantzean, SEPE) eta autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzuek garatutako enplegu-politika aktiboak biltzen dituen tresna da. Dokumentu hori urtero egin eta onartzen du Ministroen Kontseiluak. Izapideak hasteko, autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzuek beren lurralde-eremuan garatutako zerbitzu eta programa komunen nahiz propioen katalogoa egiten dute, eta Estatuko aplikazio informatiko espezifiko batean grabatzen dira. Zerbitzu eta programa horiek, bai eta SEPEri dagozkionak ere, Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko Konferentziak onesten ditu, eta dagokion lege-izapideekin jarraitzen da gero. Enplegu-zerbitzu autonomikoen 2020ko zerbitzuak eta programak otsailean jakinarazi ziren, Estatuak ezarritako epean. Hilabete geroago, koronabirusak eragindako osasun-krisia hasi zen. Hori dela eta, apirilaren 1eko Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko Konferentzian, non 2020ko

PAPEa aurkeztu baitzen, hura birformulatzea erabaki zen, autonomia-erkidegoekin lantalde espezifikoko bat abian jarrita.

Apirilaren 27an, SEPEk PAPEa berregiteko lan-metodoa eta lanen egutegia bidali zituen.

Lan-metodologian, berreraikuntza horretarako bi lantalde finkatu dira: berregitea zuzenduko duen berariazko taldea osatuko duten autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzuetako Zuzendari Nagusien Batzordea, eta PAPEaren ebaluaziorako talde teknikoa (lehendik dagoen taldea), zeina arduratuko baita zerbitzuak eta programak berregiteaz eta dagoen aplikazio informatikoan grabatzeaz. Nafarroaren aldetik, Miriam Martón Pérez zuzendari kudeatzailea zegoen berariazko taldean, eta Ana Arteaga Martínez Administrazio Laguntza eta Kudeaketarako Zerbitzuko zuzendaria, berriz, PAPEaren ebaluaziorako talde teknikoa.

Berariazko taldearen lehenengo bilera apirilaren 28an egin zen.

Apirilaren 29an ebaluazio-talde teknikoaren lanari ekin zitzaion.

Nafarroak modu aktiboan parte hartu da PAPEaren birformulazioan, Estatuak bidalitako dokumentuak aztertu eta haiei ekarpenak eginez (esparru estrategikoa) eta planteatutako zerbitzuak eta programak birformulatuz, haiek egokitu ta ekainean onetsitako Nafarroako enplegu-politika aktiboen talka-planera.

PAPEaren 2020ko datuak grabatzeko berregite-lana ekainaren 25ean amaituko da Nafarroan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, 2021-2024 aldirako Enplegua Aktibatzeke Espainiako Estrategia berria egiteko lantaldeak eratzeko proposamenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021-2024 aldirako Enplegua Aktibatzeke Espainiako Estrategia berria egiteko lantaldeak eratzeko proposamenari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 6ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (10-20/PES -00280), Enplegu eta Lan Aferen Sektorereko Konferentzian aurkeztutako Enplegua Aktibatzeke Estrategia berriari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak positiboki baloratzen du Enplegu eta Lan Aferen Sektorereko Konferen-

tzian aurkeztutako proposamena, gaiaren arabera lantalde espezifikoak osatzekoa, Enplegua Aktibatzeke Espainiako Estrategia berriaren diseinuan lan eginen dutenak. Proposamenak autonomia erkidegoek eta gizarte-solaskideek parte hartzeko lan-metodologia aurreikusten du. Proposamena sei lantalde eratzea da; horietako bat desgaitasunaren eremurako talde espezifiko izanen da. Horretarako, autonomia-erkidegoek ordezkariak izendatzea eskatu da, gehienez ere bost taldeetako bitan parte har dezaten, parte-hartzaileen kopurua orekatzeko. Desgaitasuna duten pertsonen aldeko enplegu-politika aktiboei buruzko talde espezifikoan autonomia-erkidego guztiek eta gizarte-solaskide guztiek parte hartzea aurreikusi da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak

zenbait galdera egin ditu bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta errenta bermatuari buruz (10-20/PES-00281). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak informatzeko duena:

Nahitaez jakinarazi behar da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala dela bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kudeatzeko eta izapidetzeko eskumena duen administrazioa, eta, beraz, departamentuak administrazio horrek aipatutako aldia jakinarazi dituen datuak baino ezin ditu eman. Hartara, ondorengo da bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotako espediente kopurua, urte hasieratik (urriaren 31ra arte), hilabeteka xehakaturik, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) departamentu honi jakinarazitakoaren arabera:

Hilabetea	Espediente kopurua
Uztaila	1
Iraila	1.314
Urria	19
Guztira	1.334

Familia-unitate horietatik 1.147k une honetan bateragarri egiten dituzte errenta bermatua eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera.

% 70 bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kontura ordainduko da, eta % 30 errenta bermatuaren kontura.

Errenta bermatua jasotzen duten eta 2020-10-31n bizitzeko gutxieneko diru-sarrerarako eskubiderik ez duten espedienteak, hau da, GSINek jada ukatu dituenak, honako hauek dira:

Hilabetea	Espediente kopurua
Abuztua	12
Iraila	180
Urria	398
Guztira	590

Une honetan bizitzeko gutxieneko diru-sarrerarako eskubidea izapidetzea, kudeatzea eta aitortzea Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eskumena denez, eta arau erregulatuak GSI-Nek aplikatzeko barne-irizpideak behar dituzenez erregelamendu bidezko garapena gertatzen ez den bitartean, ez dago informazio gehiago prestazio hori jasotzeko eskubiderik ez duten errenta bermatuaren jasotzaileei buruz.

Ezinezkoa da kalkulu bat egitea prestazio horrek ekarriko duen aurrezpen ekonomikoari buruz. Gai hori posible izanen da Nafarroak hitzarmen ekonomikoaren bidez egin beharko duen ekarpena ezagutzen dugunean, prestazio berri horrek Espainia osoan izan duen kostua ikusita ordaindu behar duguna jakinen baitugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 10ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle konfinatuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle konfinatuei buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Suma talde parlamentarioko Pedro José González Felipe jaunak 10-20/PES-00282 informazio-

eskaera aurkeztu du. Hona horri buruz Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak jakinarazi beharrekoa:

Hezkuntza Departamentuarentzat eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Nafarroako ikastetxeetan 2329 ikasle konfinatu dira guztira, PCR proban positibo eman dutelako, ikasturte hasieratik 2020ko urriaren 30era arte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan. Sarearen, mailaren eta ikasturtearen arabera eskatutako xehakapena I. eranskinen PES-00282 dokumentuan zehaztu da.

Gainera, taula honetako taldeak berrogeialdian egon dira eskatutako aldian.

Sarea	Ikastetxea	Maila/etapa	Taldea	Ikasleen kopurua
Itundua	Luis Amig ² Mutiloako ikastetxe itundua	DBH	3.a D	23
Itundua	Luis Amig ² Mutiloako ikastetxe itundua	DBH	4.a B	31
Itundua	La Comp. Eskolapioak Iruæeko ikastetxe itundua	DBH	3.a B	27
Itundua	La Comp. Eskolapioak Iruæeko ikastetxe itundua	DBH	3.a C	27
Itundua	Cuatrovientos Iruæeko ikastetxe integratu itundua	LH	2.a F - ADMIN. FINANTZAK	30
Publikoa	Burlata LHko Ila	LH	2.a C Sukaldaritza eta Gastronomiako erdi mailako heziketa zikloa	24
Publikoa	Lizarrako IIPa	LH	2.a MR	15
Publikoa	Tafallako IIPa	LH	1.a GS Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa goi mailako heziketa zikloa	18
Publikoa	Tuterako Valle Ebro BHla	DBH	3.a D	24
Publikoa	Atarrabiako DBHla	DBH	1.a H	21

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

Galdera, on-line irakaskuntzari ekin ahal izateko ekipo informatikoak erosteari eta ikastetxeetan banatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, on-line irakaskuntzari ekin ahal izateko ekipo informatikoak erosteari eta ikastetxeetan banatzeari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroa Suma talde parlamentarioko Pedro José González Felipe jaunak 10-20/00283 galdera idatzia egin du. Hori dela-eta, hona Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Lauhileko honetan 11.000 chromebook erosi dira. Horietatik 4.000 chromebook ikastetxeetan banatu dira dagoeneko, pandemia hasi zenetik eta aurtengo ikasturtea hasi baino lehen banatu diren 9.000 ekipamenduez gainera. Gainerako 7.000 ekipamenduak datozen egunetan hasiko dira banatzen.

500 tabletak talde konfinatuen eskura daude, mailegu gisa, ILZetako Hezkuntza Teknologien Aholkularitzaren bidez.

1.000 web kamera banatu dira Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan.

Ministerioaren programaren ekipamendua 2021ean iritsiko da ikastetxeetara.

Ekipamenduak honako irizpide hauen arabera banatuko dira:

1. Sare publikoko ikastetxeetako DBHko, Batxilergoko eta Oinarrizko LHko mailetan identifikatutako eten digitalaren estaldura bermatzea.

2. DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Oinarrizko LHko ikasle guzti-guztiengana iristea, 2020ko ekitaldian.

Hezkuntza Departamentuak egin beharreko erosketak, 2020rako aurreikusitakoak, gauzatu egin dira dagoeneko. 2021eko lehen hiruhilekoan, sare publikoko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzako ekipamenduak eskuratzeko plangintza egin da.

Merkatuaren eskuragarritasun-egoerak eragin du ekipamenduak berandu iristea, egoera hori enpresa hornitzaileen eskaintza zailtzen ari baita.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurgegui

Galdera, “Health Big Data Hub” proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Health Big Data Hub” proiektuari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, “Health Big Data Hub” proiektuari buruz (10-20/PES-00284). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 3 proiektu horietarako 2030era arte?

Deialdietan parte hartu behar duten proiektuak, prozesua arautzen duten deialdiak bezala, prestatzen ari dira.

Gainera, ziur aski jakinen duzunez, proiektu horiek 2023ra arteko aurrekontu-konpromisoa onartzen dute, eta, beraz, ezin da egin eskatzen duzun zenbatespena, 2030era artekoa.

2.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horietarako Next Generation UETik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Dokumentu biziak dira eta prestatzen ari dira; beraz, ezinezkoa da urtekako aurrekontu-banaketara aurreratzea. Behar bezala jakinaraziko dizugu, proiektua garaiz eta behar bezala gauzatzen denean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, “Centro Internacional de Investigación Inteligencia Artificial” proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Centro Internacional de Investigación Inteligencia Artificial” proiektuari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, “Adimen Artifizialaren arloko Ikerketarako Nazioarteko Zentroa” proiektuari buruz (10-20/PES-00285). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 3 proiektu horietarako 2030era arte?

Deialdietan parte hartu behar duten proiektuak, prozesua arautzen duten deialdiak bezala, prestatzen ari dira.

Gainera, ziur aski jakinen duzunez, proiektu horiek 2023ra arteko aurrekontu-konpromisoa onartzen dute, eta, beraz, ezin da egin eskatzen duzun zenbatespena, 2030era artekoa.

2.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horietarako Next Generation UETik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Dokumentu biziak dira eta prestatzen ari dira; beraz, ezinezkoa da urtekako aurrekontu-banaketara aurreratzea. Behar bezala jakinaraziko dizugu, proiektua garaiz eta behar bezala gauzatzen denean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, “Consolidación Sociedad-conocimiento” proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Consolidación Sociedad-conocimiento” proiektuari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, “Ezagutzaren Gizartea Finkatzea” proiektuari buruz (10-20/PES-00286). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 3 proiektu horietarako 2030era arte?

Deialdietan parte hartu behar duten proiektuak, prozesua arautzen duten deialdiak bezala, prestatzen ari dira.

Gainera, ziur aski jakinen duzunez, proiektu horiek 2023ra arteko aurrekontu-konpromisoa onartzen dute, eta, beraz, ezin da egin eskatzen duzun zenbatespena, 2030era artekoa.

2.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horietarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Dokumentu biziak dira eta prestatzen ari dira; beraz, ezinezkoa da urtekako aurrekontu-banaketara aurreratzea. Behar bezala jakinaraziko dizugu, proiektua garaiz eta behar bezala gauzatzen denean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, “Ebro Food Valley” proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Ebro Food Valley” proiektuari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, “Ebro Food Valley” proiektuari buruz (10-20/PES-00287). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 3 proiektu horietarako 2030era arte?

Deialdietan parte hartu behar duten proiektuak, prozesua arautzen duten deialdiak bezala, prestatzen ari dira.

Gainera, ziur aski jakinen duzunez, proiektu horiek 2023ra arteko aurrekontu-konpromisoa onartzen dute, eta, beraz, ezin da egin eskatzen duzun zenbatespena, 2030era artekoa.

2.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horietarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Dokumentu biziak dira eta prestatzen ari dira; beraz, ezinezkoa da urtekako aurrekontu-banaketara aurreratzea. Behar bezala jakinaraziko dizugu, proiektua garaiz eta behar bezala gauzatzen denean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, “Next Generation UE” planari aurkeztutako proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Next Generation UE” planari aurkeztutako proiektuei buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Next Generation UEra aurkeztutako proiektuei buruz (10-20/PES-00288). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 3 proiektu horietarako 2030era arte?

Deialdietan parte hartu behar duten proiektuak, prozesua arautzen duten deialdiak bezala, prestatzen ari dira.

Gainera, ziur aski jakinen duzunez, proiektu horiek 2023ra arteko aurrekontu-konpromisoa onartzen dute, eta, beraz, ezin da egin eskatzen duzun zenbatespena, 2030era artekoa.

2.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horietarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Dokumentu biziak dira eta prestatzen ari dira; beraz, ezinezkoa da urtekako aurrekontu-banaketara aurreratzea. Behar bezala jakinaraziko dizugu, proiektua garaiz eta behar bezala gauzatzen denean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, Nafarroa 2030 Estrategia Digitalari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroa 2030 Estrategia Digitalari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroa

2030 Estrategia Digitalari buruz (10-20/PES-00289). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 3 proiektu horietarako 2030era arte?

Deialdietan parte hartu behar duten proiektuak, prozesua arautzen duten deialdiak bezala, prestatzen ari dira.

Gainera, ziur aski jakinen duzunez, proiektu horiek 2023ra arteko aurrekontu-konpromisoa onartzen dute, eta, beraz, ezin da egin eskatzen duzun zenbatespena, 2030era artekoa.

2.- Navarra Digital Next Generation proiektua 8 osagairekin egituratzen da, zeinak 35 inbertsiotan bereizten baitira. Zein da aurreikusten den urteko aurrekontuaren xehetasuna, aipatu osagai eta inbertsio bakoitzeko?

Urteko zenbatespena Europako, Estatuko eta, azkenik, Nafarroako Gobernuaren azken onespenaren arabera izanen da, harik eta, aurreikusitakoaren arabera, aipatutako 716 milioi euroak osatu arte.

3.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horietarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Dokumentu biziak dira eta prestatzen ari dira; beraz, ezinezkoa da urtekako aurrekontu-banake-ta aurreratzea. Behar bezala jakinaraziko dizugu, proiektua garaiz eta behar bezala gauzatzen denean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, osasun etxeak larunbatetan irekitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasun etxeak larunbatetan irekitzeari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-20/PES-00290 idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

Zein izan dira helburuak, langileak jartzeko prozedura eta egin beharreko ebalua-zioa osasun etxeak larunbatean berriro irekitzeko erabakiari dagokionez?

Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak honako informazio hau helarazten dizu:

Dakizun bezala, aurreko asteetan COVID-19aren ondoriozko Nafarroako Foru Komunitateko egoera epidemiologikoak areagotu egin zuen ordura arteko asistentzia-karga, eta, oinarritzko osasun laguntzaren gerentziak uzte izan zuen beharrezkoa izanen zela Iruñeko hiru osasun etxe

larunbat eta igandeetan irekitzea, bi helburu hauekin: SARS-CoV-19aren bidezko infekzioa diagnostikatutako pazienteen jarraipen egokia egitea, profesionalen iritziz hala egin behar zen kasuetan, eta gai izatea COVID-19arekin bate-ragarriak diren sintomak edukitzen hasten diren pazienteen diagnostiko goiztiarra egi-teko.

Oinarritzko osasun laguntzaren kudeaketa klinikoari laguntzeko zerbitzuak biztanleriari buruzko zenbatespen bat egin zuen, eta kontuan hartu ziren, halaber, aurreko egunetan osasun eskualde oinarritzkoetan PCRak egiteko izandako eskaerak. Horretan oina-rrituta, egokitzen jo zen Antsoain, Ermitagaña eta Mendillorriko osasun etxeak irekitzea.

Osasun eskualde oinarritzkoak hiru arretagunetan nola taldekatu aztertu aurretik, honako hauek hartu ziren kontuan: NOT kopurua, aurreko astean izandako kasuak, au-rreko asteko tasak eta aurreko asteko PCRen eskaerak eta PCRen bidezko diagnosti-koak (21 osasun etxe kontuan hartuta, 3642 PCR).

Jardueraren aurreikuspenean oinarrituta, osasun etxe bakoitzean honako langile hauek sartzea komeni zela kalkulatu zen: hiru administrari, bi familia-mediku, helduen lau erizain, pediatra bat, pediatriako bi erizain eta erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikari bat.

Lehenengo asteburuko jarduera aztertu ondoren, pediatriaren arloko profesionalak ez esleitzea erabaki zen, eta osasun etxe bakoitzean honako profesional hauek geratu ziren: bi administrari, bi

familia-mediku, helduen lau erizain eta erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikari bat.


Egoera epidemiologikoa hobetu eta jarduerak behera egin zuela egiaztatu ondoren, oinarritzko


osasun laguntzako gerentziak erabaki du osasun etxe horien iretzea eten dadila oraingoz. Neurri hori datozen egunetan berriz ebaluatuko da, pandemiaren bilakaera ikusita.

OSASUN ESKUALDE OINARRIZKOA	NOTak, guztira	AURREKO ASTEKO KASUAK	AURREKO ASTEKO TASAK	AURREKO ASTEKO PCR ESKARIAK
Antsoain	10774	54	5,0	167
Aranguren	10769	78	7,2	153
Azpilagaæa	13694	61	4,4	160
Baraæain	21850	101	4,6	194
Berriozar	14158	72	5,1	174
Burlata	18199	101	5,6	158
Buzintxuri	13853	72	5,2	169
Alde Zaharra	12517	51	4,1	117
Txantrea	20723	87	4,2	228
Ermitagaæa	15932	58	3,6	134
II. Zabalgunea	21973	96	4,4	249
Iturrama	17119	77	4,5	165
Mendillorri	12466	60	4,8	148
Arrosadia	13754	51	3,7	147
Arrotxapea	25867	174	6,7	327
Sanduzelai	12480	82	6,6	168
Donibane	23086	84	3,6	188
Sarriguren	17280	63	3,6	200
Atarrabia	12885	94	7,3	160
Zizur	18277	98	4,4	236
Etxabakoitz	4010			

P

Herritarrentzat zabalik egon diren bi asteburuetan egindako jarduera, hautatutako hiru osasun etxeetan.





Osasun etxe horiek zabalik edukitzearen kostuari dagokionez, osasun etxe bakoitzeko 1.901 euroko kostua kalkulatu da, hau da, eguneko 5.703 euroko kostua.

Enplegua	Ordu kop./ eguna		Orduak	Ordua/kostua	KOSTUA
MEDIKUNTZA	2	6	12	58,21	699 Produktibitatea COVIDa dela-eta
ERIZAINZTA	4	6	24	32,18	772 Produktibitatea COVIDa dela-eta
ADMINISTRAZIOA	2	6	12	24,88	299 Produktibitatea COVIDa dela-eta
Erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikaria	1	7,33	7,33	17,93	131 Kontratua

D

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. arti-kulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du jakiteko ea zergatik ez diren kontratatu osasunaren eta gizarte laguntzaren adarretako profesionalen zerrendan agertzen diren migratzaileak (10-20/PES-00291). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak horri buruz informatzeko duena:

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak 36 erizaintzako laguntzaileen eta 29 erizainen zerrenda bat eman zion Pertsonen Auto-

nomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziari.

Erizaintzako profesionalen zerrenda Osasunbi-dea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzako Gerentziari helarazi zitzaion. Halere, pertsona horiek ezin izan ziren erizain moduan kontratatu, zeren eta homologatutako titulurik ez zutela egiaztatu baitzen.

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak Estatuko Administrazio Orokorrekin lanean jardun du titulu horien egiazko homologazioa lortzeko behar diren izapideak egiteko.

Azkenik, gogorarazi behar da ezen Eskubide Sozialetako Departamentuak Funtzio Publikorako ezarritako kontratazio-arauak jarraitzen dituela: lanpostu hutsetara sartzen diren langileek kontratazio-zerrendetan egon behar dute, eta halako zerrendarik ez badago, izangaien zerrenda bat eskatzen zaio Nafarroako Enplegu Zerbitzuari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-20-PES-00292), zeinaren bidez honako hau eskatzen baitu: “Jakín dugunez Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako 144 profesional etorkinen zerrenda bat igorri zion zure departamentuari. Zergatik ez da egin zure departamentuan inolako kontrataziorik zerrenda horretako pertsonekin?”. Honako hau da horri buruz Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Dakizun bezala, Migrazio Politiketako Zuzendaritzak aipatutako zerrenda helarazi zion Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari.

Pertsona horiek kontratatzeke, beharrezkoa zen titulu homologatua izatea, eta, beraz, egiaztatu zen zerrenda horretan zeudenek titulu homologatua ote zuten. Aurrekoa berrikusi ondoren, titulu homologatua duten profesionalak honako hauek baizik ez dira:

- 2, erizaintza kategorian.

- 5, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariaren kategorian.

Gainera, beharrezkoa zen ezen, Osasuneko kontseilariaren martxoaren 23ko 347E/2017 Foru Agindua aplikatuz —haren bidez onesten dira aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrendak kudeatzeko arauak, Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetako zentro eta establezimenduetarako—, profesional horiek dagokien kategoriako kontratazio-zerrendetan izena ematea, erakunde autonomo horrek kontratatzen dituen gainerako pertsonak bezala.

Migrazio Politiketako zuzendaritzarekin izandako elkarrizketaren ondoren, baieztatu genuen zuzendaritza aipatutako zazpi pertsonekin harremanetan jarriko zela eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kontratazio-zerrenda ofiziale-tan izena nola eman adieraziko zitzaizela.

Informazioa eskatu zenuenean, pertsona horietako bat ere ez zegoen kontratatuta, honako arrazoi hauengatik:

– Lehenik eta behin, pertsona horietatik zazpik baino ez zuten homologatutako titulua.

– Gainera, zazpi horietatik, batzuk baino ez dira aipatutako kontratazio-zerrendetan. Kasuren batean, pertsonak izena eman du zerrendetan, baina “eskuragarri ez” gisa agertzea eskatu du.

– Zerrendetan inskribatuta dauden eta “eskuragarri ez” gisa agertzen ez direnei, lan egiteko deituko zaie, betiere lehentasun-ordenari jarraituz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 6.2 artikulua aplikatuta jasotako konpentsazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 6.2 artikulua aplikatuta jasotako konpentsazioei buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du —6598 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen, 2020ko azaroaren 9koa (10-20/PES-00293)—. Horren bidez jakin nahi du zein diren Nafarroako Foru Komunitateak azken 10 urteotan jasotako zenbatekoak autonomia-erkidegoendako konpentsazio gisa, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 6.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Ogasuneko kontseilariak horri buruz informatu beharrekoa.

Autonomia Erkidegoen Finantziarioari buruzko Lege Organikoaren (AEFLO) 6.2 artikulua honako hau jasotzen du:

Bi. Autonomia-erkidegoek ezartzen dituzten tributuak ezin izanen dira izan Estatuak zergapetutako zergapeko egitateen gainekoak. Estatuak, jatorrizko tributu-ahala egikaritzean, autonomia-erkidegoek kargatutako zergapeko egitateen gai-

neko zergak ezartzen dituenan, eta egitate horiek diru-sarrerak murriztea badakarte, konpentsazio- edo koordinazio-neurri egokiak bideratuko ditu autonomia-erkidegoen alde.

Bestalde, AEFLOren bigarren xedapen gehigarriak honako hau gogorarazten du:

Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean, Nafarroako finantza- eta zerga-jarduera, bere foru-araubidearen arabera, Hitzarmen Ekonomikoaren sistema tradizionalaren bidez arautuko da, eta, bereziki, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta babesteari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera.

Bertan zehaztuko dira Nafarroak Estatuak karga orokorretarako eman beharreko ekarpenak, hala nola bere zerga-araubidea Estatuaren araubide orokorrekin harmonizatzeko irizpideak ere.

Adierazitako konpentsazioa araubide erkideko autonomia-erkidegoen finantzaketa-mekanismoen barruan dago, eta, beraz, Nafarroak ez du kontzeptu horrengatik inolako zenbatekorik jaso.

Estatuak beste zerga bat onesten badu, Hitzarmen Ekonomikoaren arabera, Koordinazio Batzordea, edo hark eskuordetutako azpibatzerdea, biltzeko deialdia egingen da, hitzarmena Estatuak proiektatutako zerga-figura berrira egokitzen den ebaluatu eta, hala badagokio, azter dezan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-135 errepidean aurreikusitako ekintzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-135 errepidean aurreikusitako ekintzei buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak idatziz erantzuteko galdera egin dio (10-20/PES-00294) Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariari. Bertan, honako galdera hauek egiten ditu:

Zer ekintza egiteko asmoa du Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-135 errepidean, bereziki, Zubiri, Zabaldika eta Zuriain herrietan? Zer jarduketara egiteko asmoa du N-135 errepidean Ollokiko tartean, kontuan hartuta jasaten duen trafikoko handia?

Jakinarazi behar dizut Nafarroako Gobernuak Herri-Lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak ez duela aurreikusita une honetan N-135 errepidean inolako jarduketarik egitea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, atzerrian diren nafarrei zuzendutako Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren ekintzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, atzerrian diren nafarrei zuzendutako Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren ekintzei buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00295) Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zer ekintza edo ekimen gauzatu ditu Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak, Kanpo Ekintzako Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta, atzerrian diren nafarrei zuzendutako ekintzetan?

2.- Zenbat bilera egin dira helburu horrekin bi zuzendaritza nagusietako taldeen artean?

Hona hemen erantzuna:

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 266/2019 Foru Dekretuaren arabera (11. kapitulua, 1. atala, 8. artikulua), aurreikusitako eginkizunak betetzen ditu honako arlo hauek (hitzek hitz aipatuko ditut) direla eta:

“a) Migratzaileei Nafarroan harrera egitea eta horiek integratzea.

b) Kulturen arteko bizikidetzeta hobetzea Nafarroan.

c) Arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzea.

d) Nafarroan izaten diren migrazioak aztertzea.

e) Migrazioei buruzko politikak koordinatzea Nafarroako Gobernuan.

f) Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean aritzea atzerrian bizi diren nafarrentzako ekintzetan”.

Beraz, Zuzendaritza Nagusi horren kezken artean atzerrian bizi diren nafarren egoera dago. Hala ere, Nafarroako Gobernuko departamentuen eskumenen banaketari erreparatuz gero, erabat argi dago Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiak artatzen dituela pertsona horiek.

Hala ere, baterako lanak egiten dira, eta Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak ekarpenak egiten dizkie etorkizuneko Itzulera Plana bezalako gaiei. Plan hori egiteko, Kanpo Ekintza departamentu honen analiziaz eta parte-hartzeaz baliatu ahal izan da.

Halaber, sentsibilizazioaren arloan koordinatuta lan egiten da; horren erakusgarria da Navarra de Colores-Nafarroa Koloretan markako “Esenciales-Funtsezkoak” kanpaina dela-eta egindako prentsa-gehigarriaren barruan atzerrian bizi diren

nafarrak ageri direla, migrazio-mugimenduaren hurbileko adibide gisa. Uste dugu Nafarroan jatorria duen migrazioari balioa ematea sentsibilizazio-tresna indartsua dela Nafarroara beste herrialde batzuetatik iristen diren migratzaileekiko.

Era berean, Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia beste gai batzuetarako ere kontua hartzen da; hala nola, gai jakin batzuetan Europar Batasunarekin duen harremanari buruzko gaietarako. Bestalde, zuzendaritza nagusi horrekin koordinatuta lan egiten da, beharrezkoa den ekintza guztietan.

Egindako bigarren galderari dagokionez, topaketa eta bilera ugari egin dira, ez-formalak zein formalak, bi zuzendaritza nagusietako arduradunen artean, bai eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuko eta Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilarien artean ere. Horri bi aldeen arteko komunikazio telematiko arina gehitu behar zaio, modu ez-formalagoan baina etengabea gauzatzen dena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, migrazioari buruzko politiken koordinazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, migrazioari buruzko politiken koordinazioari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 11ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00296) Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dituzan:

1. Zeharkako izaera duenez, zer ekintza edo ekimen eta zer bide erabilita gauzatu ditu Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Gobernuko beste departamentu edo erakundeekin koordinatuta, migrazioari buruzko politikak koordinatzeko?

2. Haietako zeintzuk izan dute helburu arrazismoaren eta xenofobiaren inguruko arazoei heletzea?

Hona hemen erantzuna:

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 266/2019 Foru Dekretuaren arabera (11. kapitulua, 1. atala, 8. artikulua), aurreikusitako eginkizunak betetzen ditu honako arlo hauek (hitzek hitz aipatuko ditut) direla eta:

“a) Migratzaileei Nafarroan harrera egitea eta horiek integratzea.

b) Kulturen arteko bizikidetzaren hobetzea Nafarroan.

c) Arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzea.

d) Nafarroan izaten diren migrazioak aztertzea.

e) Migrazioei buruzko politikak koordinatzea Nafarroako Gobernuan.

f) Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean aritzea atzerrian bizi diren nafarrentzako ekintzetan”.

Dirudienek, parlamentari jaunari “e) Migrazioei buruzko politikak koordinatzea Nafarroako Gobernuan” epigrafeari dagokiona interesatzen zaio. Azpimarratu behar da ezen, parlamentari jaunak ongi jakinen duen bezala, migrazioen arloko eskumenak estatu-mailakoak direla, eta, beraz, koordinazio-lana Espainiako Gobernuarekin harreman estua —Gizarte Segurantzaren, Gizarteratze eta Migrazio Ministerioaren mendeko Migrazioen Estatu Idazkaritzaren bitartez— eskatzen duen lana dela. Migrazioari buruzko politiken arloko “Foru Gobernuko beste departamentu edo erakunde batzuekiko” koordinazioa honako arlo zabal hauek hartzen ditu:

– Departamentu edo erakunde horiei Migrazioetako Estatu Idazkaritzarekin irekita dauden lan-ildo guztiak helaraztea;

– Lan-ildo horien berri ematea gobernu-bileretan, inplikaturak egon daitezkeen departamentuekin lan eginez;

– Lan-ildo horiek politika zehatzetan aplikatzea, foru gobernuko departamentu edo erakunde horiekin egunero lan koordinatua eginez;

– Lan-ildo horiek errealitate bihurtzeko beharrezkoak diren dirulaguntzen eta laguntzen deialdiak planteatzea;

– Erabiltzaileen beharretara etengabe egokitzea migratzaileei zuzendutako zerbitzuak;

– Beste erakunde batzuekin lan egitea, Nafarroako Gobernuaren ordezkari gisa, migratzaileei dagokienez: Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritza, hainbat herrialdeetako enbaxada eta kontsul-etxeak...;

– Eta beste gai asko, zeinak parlamentari jaunak dagoeneko egiaztatu ahal izan baititu, bai Nafarroako Parlamentuko agerraldietan, bai luza-roan ematen ari zaion informazioaren bidez.

Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin landu diren ekintza zehatzagoak azpimarratuko ditugu:

1. Osasun Departamentuarekin:

a. Gizarte-erakundeetatik jasotako larrialdietako laguntza edo fakturazioa ukatzeko kasuak

berrikustea, eta administrazio-egoera irregularrean eta/edo ahultasun-egoeran dauden migratzaileei osasun-laguntza ematea eta larrialdietan ez fakturatzea bermatzeko jarduerak egitea.

b. Kulturarteko bitartekarien figura COVID arakatzaileren taldean sartzea.

c. Nafarroako migratzaileen artean odolaren eta hezur-muinaren ematea sustatzeko ekintzak.

2. Herritarrekiko Harremanetako Departamentuarekin:

a. Bizikidetasunari buruzko Plan Estrategikoan parte hartzea.

b. Kulturen arteko Bizikidetasunerako Estrategia lantzeko koordinazioa.

c. Bizikidetasunari buruzko sentsibilizazio-ekintzak koordinatzea.

3. Hezkuntza Departamentuarekin:

a. Gaztelaniaren Nafarroako ikaskuntza-sistemari buruzko balorazioa eta sistema hori hobetzeko koordinazioa.

b. Bizikidetzaren eta gizarteratzearen arloarekin koordinatzea, biztanle migratzaileen arreta hobetzeko.

4. Eskubide Sozietateko Departamentuarekin:

a. Nafarroan bidaidetik gabe dauden adingabe migratzaileen arretari buruzko aldizkako koordinazioa.

b. Nafarroan bakarrik dauden gazte migratzaileak artatzeko programa abian jartzeko lankidetzak.

c. Honako txosten hau egitea Gizarte Errealitatearen Behatokiarekin batera: "Nafarroako marokoar komunitatearen identitatea eta itxaropenak: Emakumeen ikuspegia".

d. Gizarteratze arloarekin koordinatzea biztanleria migratzailearekin lotutako gaietarako.

e. Migratzaileek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-programetan duten sarbidea hobetzeko koordinazioa.

5. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin:

a. Larrialdiko bizitegi-baliabideak martxan jarritzea pilatuta bizi diren pertsonentzat, COVIDak eragindako larrialdi egoera dela eta.

b. Etxebizitzaren arloari buruzko mahai tekniko bat abian jartzeko koordinazioa, Nafarroan kalteberatasun egoeran dauden biztanleek etxebizitza

eskuratzeko duten arazoari departamentu guztien artean heltzeko.

6. Nafarroako Berdintasunerako Institutua:

a. Emakume migratzaileekin lotutako gai komunak koordinatzea eta proposamen bateratuak egitea 2021ean.

7. Gazteriaren Institutua:

a. Gazteriaren Foru Estrategia prestatzen parte hartzea.

Zeharkako lana denez, oso errepikakorra izanzen litzateke gauzatutako ekintza guztiak berriz aipatzea, zeren eta behar bezala jakinarazi baitira jada departamentu honen egitura ezartzen duen foru dekretua onetsi zenetik.

Era berean, erabilitako bideak askotarikoak izan dira: inplikaturako zuzendaritza nagusien arteko aldebiko bilerak, presentzialak zein telematikoa; idatzizko kudeaketak; alde anitzeko bilerak erakunde publiko eta gizarte-entitate desberdinen presentziarekin; Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak sustatutako topaketak, beste departamentu batzuek informazioa azal dezaten; harreara ofizialak...

Arrazakeriarekin eta xenofobiarekin zerikusia duten gaiak jorratzeari buruzkoa aipatutako Foru Dekretuaren 14. artikuluan jasota da, eta honako hau dio:

"Ayllu-Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Zerbitzuak foru dekretu honetan ezarritako eskudantziak erabiliko ditu honako arlo hauetan: Nafarroan dagoen aniztasun etniko eta kulturala kudeatzea, kulturen arteko bizikidetzak hobetzeko; arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzea; eta migrazioak eta migratzaileen eskubideak ikertzea, Nafarroako Gobernuak arlo horretan egiten dituen jarduketak politikak hobetzeko. Eta, zehazki, eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Kulturen arteko Bizikidetzak Plana diseinatzea, planifikatzea eta abian jartzea.

b) Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Plana diseinatzea, planifikatzea eta abian jartzea.

c) Kultura aniztasunaren eta dibertsitatearen balio positiboak nabarmentzeko ekimenak bultzatzea, toki entitateekin eta elkarteekin elkarlanean.

d) Sentsibilizazio programak eta ekintzak diseinatzea eta bultzatzea, bere eskumeneko arloetan.

e) *Babesgabetasunean dauden adingabe atzerritarren mahai sektorialeko lantaldeak bultzatzea, kudeatzea, koordinatzea eta horien jarraipena egitea.*

f) *Bere eskumeneko dirulaguntza deialdiak kudeatzea, tramitatzea eta haien jarraipena eta kontrola egitea.*

g) *Citibeats tresna digitala erabiltzea, Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatua, sare sozialetan izaten diren gorroto-diskurtsoak monitorizatzeko.*

h) *Kulturen arteko bizikidetzaren hobetzeko eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko neurriak koordinatzea, neurri horiek Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuetan garatzen direnean.*

i) *Bere eskumeneko arloetako neurriak koordinatzea beste autonomia erkidego batzuekin eta Estatuko Administrazio Orokorrekin.*

j) *Nafarroako Migratzaileen Foroa sortzea, antolatzea eta dinamizatzea”.*

Ildo horretan, adierazi behar dut Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak, sortu zenetik, honako gai hauei erreparatu diela:

Migratzaileak aisialdiko, kiroleko edo kulturako jardueretan sar daitezzen sustatzea, hainbat ikuski-

zunerako sarrerak edo gonbidapenak eskura ditzaten bultzatuz; edo kirola sustatzea, gizarteratzerako bide gisa.

Gobernuaren ekintzen komunikazioan atzerriko hizkuntzen erabilera sustatzea, batez ere koronabirusaren aurkako borrokarekin lotutako informazio garrantzitsuari dagokionez.

Arraza-dibertsitatea sustatzea Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuen komunikazio-kanpainetan, eta kanpaina horietan sor daitezkeen arazoak hautematea.

Bizikidetasun-planak eta gizarteratzearekin lotutako jarduerak egin daitezzen sustatzea, toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdiaren bidez.

Ekintza horiek guztiak departamentu guztiekin koordinatuta egin dira. Koordinazio hori bai kontseilarien artean, bai zuzendari nagusien artean, bai kabineteen artean gauzatu da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, konfinamendu-egoeran dauden ikasleen ebaluazio-probei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, konfinamendu-egoeran dauden ikasleen ebaluazio-probei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro José González Felipe jaunak 10-20/PES-00266 galdera aurkeztu du, jakin nahi baitu zer jarraibide bidali dituen Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxeetara, Covid-19 pandemiaren ondoriozko konfinamendu egoera dela-eta ikasleren batek

ebaluazio arrunteko probak egiteko aukera galduz gero nola jokatu behar den adierazteko. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak, txosten honen datara arte, ez du inolako jarraibide espezifikorik bidali ikastetxeetara jakinarazteko nola jokatu behar duten ikasleren batek ezin baditu ebaluazio arrunteko probak egin Covid-19 pandemiak eragindako konfinamendu egoeraren ondorioz.

Ikastetxeek, beren autonomia pedagogikoa, kudeaketakoa eta antolamendukoa baliatuz, banaka erantzunen diete galderan azalduetako egoeran aurkitzen diren ikasleei. Horrela jokatu ohi da gaixotasun arrunten ondorioz eskolara joan gabe gelditu eta ebaluazio arrunteko probak egiteko ez duten ikasleekin.

Iruñean, 2020ko abenduaren 14an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako larrialdietako laguntza fakturatzeko prozedurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako larrialdietako laguntza fakturatzeko prozedurari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin

ditu (10-20/PES-00297), Nafarroako Gobernuak Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zer ekintza edo ekimen abiarazi dira legegintzaldia hasi zenetik, Osasun Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako larrialdietako laguntza fakturatzeko prozedura berrikusteko eta ekiditeko Migrazio Politiketako zuzendari nagusiaren aitopenen arabera gertatzen ari diren gorabeherak?

2.- Zer bilera egin dira bi zuzendaritza nagusien eta gizarte-entitateen ordezkarien artean arazo horri heltzeko?

3.- Gorabehera horiek bukatutzat jotzen al dituzue?

Hona hemen erantzuna:

Erabaki da ezen Osasun Departamentuak indartu egingen duela larrialdietako langileentzako informazioa, fakturazio prozedura ezegokiak saihesteko.

Gizarte entitateek kasu zehatzen bat igorri diguten aldiro zuzenean esku hartu da, eta, Osasun Departamentuarekin koordinaturik, informazio egokia eman da eta fakturazioa saihestu.

Bi bilera egin dira Osasun Zuzendaritza Nagusiarekin eta bilera bat gizarte entitateekin.

Osasun larrialdia dela eta, prozedura horiek eta haien eraginkortasuna berrikustea geroratu

egin da. Beraz, gaur egun ez daukagu eskura gorabehera horiek bukatu direla baieztatzeko behar genukeen informazio osoa. Nolanahi ere, bi departamentuok nahi dugu hala izatea; eta horretarako lanean segitzen dugu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen osasun-txartela eskuratzeko prozedurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen osasun-txartela eskuratzeko prozedurari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00298), Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zer ekintza edo ekimen abiarazi dira legegintzaldia hasi zenetik, Osasun Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen osasun-txartela eskuratzeko prozedura berrikusteko eta ekiditeko Migrazio Politiketako zuzendari nagusiaren aitorpenaren arabera hori betetzen ez den egoerak?

2.- Zer bilera egin dira bi zuzendaritza nagusien eta gizarte-entitateen ordezkarien artean arazo horri heltzeko?

3.- Gorabehera horiek bukatutzat jotzen al dituzue?

Hona hemen erantzuna:

Erabaki da ezen Osasun Departamentuak indartu egingen duela osasun etxeetako langileentzako informazioa, gertatu izan diren ukapenak berriz ez gerta ez daitezen, eta guztiek informazio zuzena dutela bermatzeko.

Gizarte entitateek kasu zehatzen bat igorri diguten aldiro zuzenean esku hartu da, eta, Osasun Departamentuarekin koordinaturik, informazio egokia eman da.

Bi bilera egin dira Osasun Zuzendaritza Nagusiarekin eta bilera bat gizarte entitateekin.

Osasun larrialdia dela eta, prozedura horiek eta haien eraginkortasuna berrikustea geroratu egin da. Beraz, gaur egun ez daukagu eskura gorabehera horiek bukatu direla baieztatzeko behar genukeen informazio osoa. Nolanahi ere, bi departamentuok nahi dugu hala izatea eta horretarako lanean segitzen dugu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

